



## **LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK**

### **1.- Egitasmoaren izenburua:**

GATZ MUSEORAKO AZPIEGITURA BERRIAK. 2018

### **2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea:** 2018

### **3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:**

- II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta eta modernizatzeko inbertsioerako laguntzak
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarriko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak

### **4. - Proiektuaren helburua:**

Helburu nagusia Leintz Gatzagan enplegua sustatzeko jarduera ekonomikoak bultzatzeko baliabideak sortu eta proiektu onekin atzetik historia luze bat duen antzinako ekoizpen prozesu baten berreskuratzea eta gatzaren merkaturatzea, museoaren eta ingurunearen birgaitze eta egokitzapen batekin batera, oso lagungarriak dira turismo aktibo zein sentsibilizatu bat erakartzeko, eta baita eskolan dabilzan gazteak erakarri eta beraien kontzientzian eragiteko ere.

**5.- Inbertsio totala:** 184.521,79 euros

### **6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:**

LEADER: 87.351,65 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

### **7.- Onuraduna:**

LEINTZ GATZAGAKO UDALA

Publikoa

Pribatua

## **8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:**

Aipatu beharra dago Euskal Herrian Añana eta Leintz Gatzaga direla Gatz ekoizpena egiten dute guneak. Bi ekoizpen oso desberdinak dira, beraz patrimonio aldetik begira gune oso interesgarria da eta bere eragina gutxienez Lurralde mailakoa dela esango genuke. Eskualde mailan Mankomunitateko turismo eskaintzan ere erreferentea da. Berezitasun hau dela eta hainbat entitatetan parte hartzen dute:

### **IPAISAL**

Ipaisal Gatzaren Paisaiaren eta Ondarearen Institutua da. Ipaisal Barnealdeko Gatzagen Lagunen elkartzeko-hitzarmen kulturalaren bidez sortu zen eta Leintz Gatzagako Udala erakunde horretako kide da.

Barnealdeko Gatzagen Lagunen elkarte kulturala entitate pribatua da, burujabea eta irabazi-asmorik gabekoa, eta bere funtzio nagusienak ikerketa, defentsa eta gatzaren paisaia eta bere balio naturala zein kulturala balioestea eta zabaltzea dira.

2013. urtean (uztaila) Barnealdeko Gatzagen Lagunen Elkarteak Leintz Gatzaga hautatu zuen barnealdeko gatzagen festa eguna antolatzeko

### **Gastromuseums**

Euskadiko Museo eta Zentro Enogastronomikoen sarea esperientzia turistiko bateratu bat eskaintzeko nahiarekin sortu zen, hala, euskal kultura gastronomikoa eta haren produktuak era bateratu batean aurkeztuz.

Gastromuseums ekimenak biltzen dituen museoetako batzuk hauek dira:

- Delikatuz gastronomia eta elikadura, Ordizian
- Igartubeiti dolare-baserria, Ezkio Itxason
- Euskal Sagardoaren Museoa, Astigarragako sagardoetxean
- Txakolingune. Txakolinaren Museoa, Bakion
- Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa, Idiazabalen
- Villa Lucia, ardoaren centro tematikoa
- Leintz gatzagako gatz museoa

### **Salies de Bearn**

Salies de Bearneko udaleko zein bertan duten Gatz museoko ordezkariekin harremanetan jarri zen Leintz Gatzagako udala 2017an. Harreman hau fruituak ematen ari da.

- 2018ko Ekainean Leintz Gatzagako udaleko ordezkari bat, Salies de Bearnera joan zen "fete du sel" ikusi eta herria ezagutzera.
- 2018ko Irailean Salies de Beranen Nazioarteko arkeologi jardunaldiak ospatu ziren. Gonbidapena jasota, Leintz Gatzagako udaleko ordezkari bat bertan izan zen.
- 2018ko Urriak 21an Gatzaren eguna ospatu genuen Leintz Gatzagan eta Salies de bearneko udal ordezkariak eta museoko ordezkariak etorri ziren Leintz Gatzagara gonbidatu moduan.

2018ko Urriak 21an Salies de Bearn eta Leintz Gatzagaren anaitzea gauzatu zen, bi herrien arteko harremana sendotzeko asmoz. Anaitzearen ondorioz, urtero-urtero bi herrien artean kultur egitarau bat garatzen da.

## Gatzaren eguna

Leintz Gatzagako udalak antolatu eta sustatutako egun osoko jardunaldi kulturala da GATZAREN EGUNA. Herriari izana eta izena eman dion gatzaren kultura gipuzkoa osoan zabaltzeko helburua duen jardunaldi kulturala da, gatzaren eguna.

Gatzaren egun kultural honetan hainbat ekintza antolatzen dira, egun osoko jardunaldi egituratu bat osatzen delarik:

- Gatz museora bisitak
- Gatza oinarri duten tailerrak (gatzeko xaboiak, exfolianteak...)
- Umeentzako jolasak
- Ekintza bereziak (gazkinei omenaldia 2017an adibidez)
- Mendi ibilbide gidatuak
- Etab...

### 9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Leintz-Gatzaga, Gipuzkoa

### 10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Hemen garatzen ari diren proiektuak, gatzaren ekoizpena ardatz nagusitzat hartuta, jarduera ludikoak zein pedagogikoak garatzea, bisitaldiak zein ibilbideak antolatzea, eta egonaldiak egitea ahalbidetuko dituen ostatuak sortzea du helburu. Hori guztia, Leintz Gatzaga udalerriaren eta bere ingurunearen dinamizazioa zein berpiztea jomugatzat hartuta burutzen ari dira. Jarduera guztien helburu lanpostuak sortzea da eta Leintz Gatzagan bizi eta lana egiteko aukerak irekiko ditu, herritarren bizi kalitatea hobetuz.

Proiektu orokorra, bere tamaina handia dela eta, 3 ataletan zatitu da:

Atalak	Kontzeptua	egoera
1. ATALA	Erabilera anitzeko gela baten egokitzapena	Eginda
	Gatzaren ekoizpenerako makineria (ez da udaletxearen inbertsioa izango)	Eginda
	<b>Biomasa bidezko berotze sistema</b>	<b>martxan</b>
2. ATALA	<b>Santa Columba: harrera-lekua eta denda</b>	<b>martxan</b>
	Indusketa arkeologikoak Santa Kolonban	Eginda
	Patre Notre sistema balioan jartzeko proiektua	Eginda
	Putzuak eta aldagelak (ez dakigu noiz egingo diren)	

3. ATALA	Gaztainuzketa biziberritzeko proiektua 2019-2020	2019-2020
----------	--	-----------

**2017an, proiektu honen lehen fasean,** gatz ekoizpena martxan jartzeko Gatz museoko 90m2ko lokal baten egokitzapen proiektuari eman genion hasiera (proiektua idatzi, diru laguntzak eskatu, adjudikazioak egin...). 2018an obra zibila egin zen. 2019an gatza egiteko lanabes eta tresnariarekin hornitu dugu ekoizpen gunea. Gaur egun, gatz ekoizpena osasun sailak eskatutako berme guztiekin egiten da gatz museoko ekoizpen gunean.

Orain arte gatz museoaren kudeaketa, jarduera museistikoa zein gatz ekoizpena eta salmenta, udaletxetik kudeatutako jarduera izan da. 2019ko Ekainean JARDUERAREN KUDEAKETA udaletxetik kanpora atera da eta **Libe Ramila eta beste bat Ondasun Erkidegoari** esleitu zitzaion. Gaur egun museoa modu profesionalean kudeatzen da.

**2018an bigarren faseari ekin genion.** Fase honetan, museoan dugun SANTA COLUMBA ERMITA informazio puntu, museoko harrera gunea eta gure produktuaren salmentarako gunea moduan egokitzeko proiektua egin genuen. Santa Columba ermita berreskuratu eta balioan jartzeaz gain gatz gunean dugun jarduera ekonomikoa ordenatu, finkatu eta tinkatu dugu proiektu honekin, LEINTZ GATZAREN EGOITZA sortuz. Proiektua 2018an idatzi zen eta esleipena 2019ko Ekainean egin zen. **Egokitzapen obrak 2019ko Irailean hasi ziren eta 2019ko Abenduan bukatuta dira.**

#### **11.- Inpaktua eta emaitzak ( zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):**

Leintz Gatzaga Debagoieneko eskualdean kokatzen da eta bere jarduera ekonomiko lehen sektorea eta hirugarren sektorearen garapenera zuzendu du. Ez du bigarren sektorea garatzeko aukerarik. Bere baliabide-altxor nagusia da Gatz ekoizpenari lotutako patromonio kulturala eta horretan oinarritu da bere ekonomia sustatzeko. Jarduera guztien helburu lanpostuak sortzea da eta Leintz Gatzagan bizi eta lana egiteko aukerak irekiko ditu, herritarren bizi kalitatea hobetuz. Baina duen berezitasunagatik eta bera mantentzen egin duen aleginarekin Erkidegoko erreferente da.

Aipatu beharra dago Euskal Herrian Añana eta Lenitz Gatzaga direla Gatz ekoizpena egiten duten gunea bakarrak. Bi ekoizpenak oso desberdinak dira, beraz patrimonio aldetik begira gunea oso interesgarria da eta bere eragina gutxienez Lurralde mailakoa dela esango genuke. Eskualde mailan Mankomunitateko turismo eskaintzan ere erreferentea da.